EIBARKO UDALA

EIBARKO UDALEKO IDAZKARI OROKORRA NAIZEN HONEK, JUAN AGUSTÍN VILLAFRANCA BELLIDO k, hauxe

ZIURTATZEN DUT:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023-9-22an egindako bileran honako akordio hau hartu zuela:

Eibarko HAPOren aldaketa puntuala egiteko erabakia hartzea Txontako eremuari eta Errekatxu kaleko 17, 19 eta 21 zenbakietako eraikinei dagokienez, eta prozesuaren partaidetza-programa egitea.

Eibarko Herriaren Antolamendurako Plan Orokorrari (aurrerantzean HAPO) behin betiko onespena eman zion Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an egindako bilkuran; testu bateratua 2007ko abenduaren 18ko Diputatuen Kontseiluak onartu zuen eta 2008ko urtarrilaren 22ko Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratu zen.

HAPOk Txonta eremuari Txonta 125 JI izena eman eta haren erabilera aldatzea erabaki zuen: industria-erabileratik bizitegi-erabilera trinkora pasatzea, alegia. Hala ere, 2009ko otsailaren 24an, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenak, Eibarko HAPOk Txonta eremurako zituen aurreikuspenak baliogabetzeko epaia eman zuen.

Eremurako aldaketa puntual bat idatzi eta onartu egin zen, eta berriz ere indargabetu zuen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenak, 2017ko apirilaren 21ean emandako sententziaren bidez.

Bi deuseztapen horien ondorioz, Txontako eremuak ez du hirigintza-antolamendu eguneraturik indarrean, eta nahitaezkoa da eremurako hirigintza-antolamendu berri bat onartzea, HAPOren aldaketa puntual bat eginda.

Hainbat akordio egin dira Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin eta eremuko jabeekin, bertako erabilera eta gestioari dagokienez. Zehazki, 2021eko maiatzean hitzarmen bat sinatu zen Etxebizitza Sailarekin, zeinaren bidez Sailak konpromisoa hartu zuen Txonta Hegoaldeko eremuan babes sozialeko etxebizitza-promozioak garatzeko eta eraikitzeko.

JUAN AGUSTÍN VILLAFRANCA BELLIDO, SECRETARIO GENERAL DEL AYUNTAMIENTO DE EIBAR,

CERTIFICO:

Que la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 22-9-2023, adoptó el siguiente acuerdo:

Acuerdo de formulación de la Modificación puntual del PGOU de Eibar en el ámbito de Txonta y los edificios 17,19 y 21 de Errekatxu kalea y aprobación del Programa de participación ciudadana del proceso.

El Plan General de Ordenación Urbana de Eibar fue aprobado con carácter definitivo, por el Consejo de Diputados de la Diputación de Gipuzkoa, con fecha 12 de diciembre del 2006 y su texto refundido fue aprobado por el acuerdo del Consejo de Diputados de 18 de diciembre de 2007, y publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 22 de enero de 2008.

El PGOU denominaba el ámbito de Txonta como A.I. 125 Txonta y acuerda el cambio de uso de industrial a residencial intensivo. Sin embargo el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dictó sentencia el 24 de febrero de 2009 por la que se anularon las previsiones del PGOU de Eibar para el ámbito de Txonta.

Redactada y aprobada una modificación puntual para el ámbito, la misma fue de nuevo anulada por el TSJPV por sentencia de 21 de abril de 2017.

Por efecto de ambas anulaciones el ámbito de Txonta no cuenta con ordenación urbanística actualizada en vigor y es obligatorio aprobar una nueva ordenación urbanística para el ámbito a través de una modificación puntual del PGOU.

Se han llegado a acuerdos con el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco y con propietarios del ámbito en referencia a los usos y la gestión del ámbito. En concreto se suscribió en mayo de 2021 un convenio con el Departamento de Vivienda por el que este se compromete al desarrollo y edificación de promociones de vivienda de protección social en el área de Txonta Sur.

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)


| Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **00f5d25951a9afe0fefcada4a292203ad943af2c**<br>Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300002511**<br>**https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do** | |
|---|---|
| Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por: | Data / A día: |
| **JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO** | **27/09/2023 13:46:43** |

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Ondorioz, aldaketaren helburu nagusia izango da Txonta eremuan, erabiltzen ez diren industria-instalazio zaharrek okupatzen dituzten guneetako industria-erabilera aldatzea, eta ingurua lehengoratzea, bizitegi-erabilera berriak ezarriz. Horretarako, jarduera integratuko bi esparru zedarrituko dira AP-8ko bidezubiaren iparraldean eta hegoaldean.

En consecuencia el objeto principal de la Modificación será cambiar el uso industrial de las zonas del ámbito de Txonta ocupadas por antiguas instalaciones industriales en desuso y regenerar la zona implantando nuevos usos residenciales. Para ello se delimitarán dos áreas de actuación integrada al norte y al sur, respectivamente, del viaducto de la AP-8.

Era berean, aldaketa puntualean Errekatxuko 17, 19 eta 21 zenbakietako eraikinak ordezteko eta berreraikitzeko behar den antolamendua ere sartu nahi da, eraikin horiek oso egoera estruktural txarrean baitaude eta berreraikitzeak auzoa berroneratzen lagun dezake.

Asimismo se quiere incluir en la Modificación puntual la ordenación necesaria para sustituir y reedificar los edificios de Errekatxu 17, 19 y 21, que se encuentran en muy mal estado estructural, contribuyendo a la regeneración del barrio.

46/2020 Dekretuaren arabera, hirigintza-plangintzaren aldaketa edozein unetan egin ahal izango da, plangintza orokorraren berezko zehaztapenei edo elementuei buruzkoa denean, epeak amaitzen direnean, edo planean bertan berrikuspenerako aurreikusitako kasuak edo inguruabarrak gertatzen direnean; aldaketa egiteko, lehenengo berrikuspen-lanak hasteko erabakia hartu beharko da.

De acuerdo al Decreto 46/2020 la modificación del planeamiento urbanístico podrá tener lugar en cualquier momento, cuando se refiera a determinaciones o elementos propios del planeamiento general, expirados los plazos o producidos los supuestos o circunstancias previstos en el propio plan para su revisión, la modificación podrá llevarse a efecto una vez se haya adoptado el acuerdo de inicio de los trabajos de revisión

Gobernu Batzordeak, 2020ko uztailaren 24an, Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspena egiteko espedientea hastea erabaki zuen, eta 2023ko urtarrilaren 9ko erabakiaren bidez, Eibarko HAPOren berrikuspena idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak onartzea. HAPO berrikusteko prozesua, beraz, martxan dago, nahiz eta, adierazitako inguruabarrak direla-eta, beharrezkotzat jo eremu horien antolamenduaren onarpena denboran aurreratzea. Betetzen da, hortaz, 46/2020 Dekretuan ezarritakoa.

La Junta de Gobierno en fecha 24 de julio de 2020 acordó iniciar expediente para la formulación de la revisión Plan General de Ordenación Urbana de Eibar, y por acuerdo de 9 de enero de 2023 se acordó aprobar los criterios y objetivos que servirán de base para la redacción de la revisión del PGOU de Eibar. Está en marcha, por tanto, el proceso de revisión del vigente PGOU, aunque por las circunstancias expresadas se considera necesario adelantar en el tiempo la aprobación de la ordenación de estos dos ámbitos. Se cumple por tanto lo establecido en el Decreto 46/2020.

Xede horrekin, KREAN, S. Coop enpresaren zerbitzuak kontratu ditu Udalak, Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketa puntualaren dokumentua idazteko.

Con este objetivo se han contratado por parte del Ayuntamiento los servicios de la empresa KREAN, S. Coop para la redacción del documento de Modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 84.4 eta 108. artikuluek eta 46/2020 Dekretuaren 3. artikuluak ezartzen dutenez, lurralde-antolamenduko edo hirigintza-antolamendu estrukturaleko edozein figuraren formulazio, berrikuspen edo aldaketaren hasierari emateko akordioarekin batera, partaidetza-programa bat aurkeztu beharko da. Pro-

Los artículos 84.4 y 108 de la ley 2/2006 de suelo y urbanismo, así como el artículo 3 del Decreto 46/2020 establecen que el acuerdo de inicio de la formulación, revisión o modificación de cualquier figura de ordenación territorial o de ordenación urbanística estructural deberá estar acompañado de un programa de participación en el que se estable-

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **00f5d25951a9afe0fefcada4a292203ad943af2c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300002511**
**https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

| Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por: | Data / A día: |
|---|---|
| **JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO** | **27/09/2023 13:46:43** |

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

grama horretan, behar beste helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira herritarrek eta elkarteek plana egiteko prozesuan parte hartzeko duten eskubidea ahalbidetzeko.

Herritarren partaidetzarako programa modu laburtuan argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikokoan, sustatzen duen administrazio publikoaren arabera; partaidetza-programaren zabalkundea teknologia berrien bidez ere egingo da.

KREAN enpresak proposamen bat egin du herritarrek parte hartzeko programa baterako.

Azaldutakoa kontuan hartuta, Hirigintzako Batzorde Aholkulariko kideek, Hortas eta Mata andreen aldeko botoarekin, eta Mendikute jaunaren kontrako botoarekin, zera proposatzen diote Gobernu Batzordeari:

LEHENA: HASIERA EMATEA ESPEDIENTEARI Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrean Txontako eremuaren eta Errekatxu kaleko 17, 19 eta 21 eraikinen aldaketa puntuala eta hari lotutako partaidetza-programa egiteko.

BIGARRENA: ONARTZEA prozesu horren partaidetza-programa; akordio honekin batera erantsi da.

HIRUGARRENA: ARGITARATZEA programaren laburpen bat bai Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, bai udal-webgunean ere.

Eta horrela azal dadin eta bere ondorioak sor ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Eibarren sinatzen den egunean.

rán los objetivos, estratégicas y mecanismos suficientes para posibilitar el derecho a participar de la ciudadanía y entidades asociativas en el proceso de su elaboración.

El mencionado programa de participación ciudadana se publicará resumidamente en el Boletín Oficial del País Vasco o en el del territorio histórico correspondiente, según la administración pública promotora; se divulgará, además, a través de las nuevas tecnologías de la información.

Se ha elaborado por KREAN una propuesta de Programa de participación ciudadana.

A la vista de lo expuesto los miembros de la comisión asesora de Urbanismo con el voto a favor de las señoras Hortas y Mata y el voto en contra del señor Mendikute, proponen a la Junta de Gobierno la adopción del siguiente

PRIMERO: INICIAR el expediente para la Modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar en el ámbito de Txonta y los edificios 17,19 y 21 de Errekatxu kalea.

SEGUNDO: APROBAR el programa de participación ciudadana en dicho proceso, que se adjunta al presente acuerdo.

TERCERO: PUBLICAR en el Boletín Oficial de Gipuzkoa así como en la página web municipal un resumen del citado programa.

Y para que así conste, y surta efectos donde convenga, extiendo la presente en Eibar, a fecha de la firma.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **00f5d25951a9afe0fefcada4a292203ad943af2c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300002511**
**https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**

| Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por: | Data / A día: |
|---|---|
| **JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO** | **27/09/2023 13:46:43** |